

UDALBATZAREN BURUARI

Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluan oinarrituta, MOZIO hau aurkezten du Udalbatzak azter dezan, uztailaren 9an Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) saihebidetako sarreraren gaineko jarraipen batzordeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2016. urte amaieran, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde arteko batzorde bat sortzea erabaki zuten, hiriko zenbait sarbide nola egokitu aztertzeko. Dimentsio tekniko-politikoko foroa da –gero jakinarazi zigutenez–, eta, printzipioz, haren helburua da gaur egungo saihebidetako errepide “urbanoago” bihurtzea bigarren ingurabidea egin ostean. Horrez gain, Carlos I. etorbideko sarrera kentzea aztertzeko eta hiriko gainerako sarrera-irteeren egoera birpentsatzea dira haren zereginak.

Bi erakundeetako arduradunak pozik agertu ziren aipatutako batzorde hori sortu izanaz, esanez premia bati erantzuten ziola: gaiari buruzko eskumenak dituzten erakundeek hiriko sarreraren gaineko aukera ezberdinak aztertzeko eta balizko aldaketek errepide sarean eta hiriguneko sarreretan izango zituzten eraginak aztertzeko premiari.

Besteak beste, Carlos I. etorbideko sarbidea kentzeak izango lukeen eragina zen aztertu beharreko puntuetako bat, auzokoek sarbide hori kentzeko eskatzen jarraitzen baitute. Neurri horrek beste zenbait gai jorratzea ere eskatzen du, esate baterako, aurreikusitako Martuteneko biribilgunearen birmoldaketa. Proiektu hori eginda dago, baina mahai ganean jarraitzen du oraindik. Saihebidetarekin beste lotura bat egiteko aukera da aztertu beharreko beste puntuetako bat.

Batzorde horrek egindako lanei buruzko xehetasunak jakiten saiatzeko, beste batzorde bat sortu zen udal honetan, Udalak eta Diputazioak osatutako erakunde arteko batzorde horren aurrerapenen jarraipena egiteko asmoz. Foro horretan, ia ez zaigu bi erakundeek egindako lanei buruzko informaziorik eman. Hain zuzen, 2016ko urriaren 13an izan zen azken bilera.

Informazio gehiago izateko interesa dugunez, azken batzordean interpelazioa egin genion Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari. Esan zuen zenbait kontutan lanean ari dela batzordea, baina ez zigun emaitzen edo aurrerapen esanguratsuen berri eman. Oinarrizko beste galdera batzuk ere ez zizkigun erantzun: esate baterako, zenbat bilera egin dituen batzordeak, zenbatean behin biltzen den eta zer aurreikuspen dituen.

Esanguratsua da nola garatzen den erakunde arteko batzorde horren jarduera. Donostiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuek ezin dituzte modu horretan hartu Donostiako mugikortasunari lotutako funtsezko erabakiak: gizarteari bizkarra emanez (gizarte horrentzat gobernatzeko dute); lurraldeko eragile sozial, politiko eta ekonomikoen parte-hartzerik gabe; eta beren jarduera publikoari buruzko azalpenik eman gabe.

Ikusita Donostiako hiritarrek eta udalean ordezkari politikoak dutenek erakunde arteko batzorde horrek egindako lanen jakitun izan behar dutela gutxienez, eta ikusita horretarako etxe honetan foro bat sortu zela baina ez dela biltzen 2016ko urriaren 13tik, MOZIO hau aurkezten du Talde Popularrak:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die erakunde arteko batzordearen (Donostiako Udala-Gipuzkoako Diputazioa) jarraipena egiten duen udal batzorderako deia egiteko bi hilabete baino lehen, erakunde arteko batzordeak egindako lanen xehetasunak ezagutzeko.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea.